

Elkarteak helburu komun batekin batzen diren pertsona-taldeak dira, helburu sozial, kultural, hezitzaile edo bestelakoekin eta aldi berean, talde soilak baino gehiago dira; aldaketarako, ikaskuntzarako eta lankidetzarako plataformak direlako. Hauek, komunitatearen aldaketarako eta garapenerako tresna ahaltsua izan daitezke eta hauen inguruan hausnartuz, hainbat puntu garrantzitsu azpimarra ditzakegu, esaterako, osasun mentalaren kontzientziazioa. Hortaz, elkarte eta entitate ezberdinekin harremanetan jartzea funtsezkoa izango da zerbitzua bideragarria eta eraginkorra izateko.

Funtsezkoak:

Elkarte/Entitatea	Deskribapena	Harremana
Argia 	Osasun mentala antiestigmaren aktibismoan zentratzen den elkarte da. Elkartearen egoitza nagusia Algortan kokatuta dago	Formakuntza ezberdinak jasoko ditugu. Gure zentruan Argiaren inguruko informazio emango dugu triptiko batzuen bidez.
Avifes 	Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, onura publikokoa deklaratu. Osasun mentalarekin lan egiten dute, oro har, eta arreta psikologikoa eta hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte. Gainera, errehabilitazio psikosozialeko programak eta integrazio komunitariorako jarduerak eskaintzen dituzte. Elkartearen egoitza nagusia Santutxun kokatuta dago.	Gure koordinatzaileetarikozuzeneko batek harremana izango du. Hortaz, material berritzaileak eta anitzak eskuragarri izango ditugu. Gure enpresan Avifes-en inguruko informazio emango dugu triptiko batzuen bidez.

APS: Asociacion para promover la salud mental en Bizkaia 	Osasun mentalaren prebentzioa, gestioa, kontzientzazio eta sustapena dute helburu. Bilbon kokatuta dago.	Osasun mentalaren oinarriak eskuratuko ditugu LauArgin APS inguruko informazio emango dugu triptiko batzuen bidez.
Bilboko udala 	Gure enpresa udaletxearekin harremanetan egongo da. Ernesto Erkoreka Plazan kokatuta dago.	Udalaren dirulaguntzetaz baliatuko gara. Era berean, udalaren aliatuak izatea gustatuko litzaiguke, osasun mentalaren inguruko edozein proiektutan parte hartuz.

2. mailakoak:

Proiektuak aurrera egin ahala profesional ezberdinekin elkarlanean aritzea da gure helburua. Hala nola, Yolanda Atxa eta Maider Herreros psikologa eta hezitzaileekin lanean arituko gara. Profesional ikaragarriak izateaz gain, haiengandik ikasteko plazerra izan dugu gure ikasketetan, gure egungo irakasleak baitira.

Horrez gain, parte-hartzaileen interesekoak diren gaiak jorratuko ditugu interes horiekiko jakintza duten adituekin harremanetan jarritz. Esaterako, parte hartzaileek komunikazio ez bortitzaren gaiaren inguruan interesa izango balute Nerea Mendizabal adituarengana joko genuke.